



Borja Hernandez Urrutxurtu jostunak neurritan egindako jantziak sortzen ditu BHU Getxo atelierrean. Aritz LOIOLA | FOKU

infraganti **BORJA HERNANDEZ URRUTXURTU**

Borja Hernandez Urrutxurtu diseinatzaile gazteak Getxon eta getxoztarrentzat sortzen aurkitu ditu inspirazio dosi handiak. Neurritan egindako jantzien kalitatea eta bizitza luzea aldarrikatzen ditu besteentzat sortuz gozatzen duen modaren artisauak. Orain, herrian zerotik sortu duen emaztegaiei eskainitako diseinu lerro batean ari da lanean.

Algortan duen atelierreko ateak zabaldu dizkio GAUR8ri Borja Hernandez Urrutxurtu diseinatzaile eta jostun gazteak. Metroa lepoan jarrita eta orratzontzia papa-

rrean, traje baten prakekin lanean aurkitu dugu. Jantzia luzatu du eta osatzen ari den detaileak erakutsi ditu. Mugimendu handia du orain. Ezkongaienezat zenbait eskaera ditu esku artean, eta agenda zorrotz kudeatu behar du jostunak, prozesuek eskatzen di-

tuzten denborei behar bezala erantzuteko.

Traje baterako patroiak osatzeko bakarrik 10 eta 15 ordu artean eska ditzake «kartaboi eta arkatsetan», eta ondoren, lauzpabost frogak egon daitezke. Prozesuak luzeagoak dira emaztegaiei kasuan, «ele-

mentu eta detaile gehiago doazelako soinekoari lotuta, tula, beloa, burukoia....

Solasaldia hasi eta lanbidea- rekin lotutako bitxikeria bat agertu da berehala. Azaldu du azken jantzi heldu baino lehen neurri berdineko kopia bat egin duela kotoian, errazagoa baita aldaketak egin behar izatekotan. Ez da lan arina neurritan egindako prakak sortzea; jaka, beroki eta beste jantzi batzuekin bezala, perfektzioa gorputzaren forma zehatzei egokitzean datzala esan liteke, eskatutako ezaugarri zehatz batzuk jarraituz. Horregatik, funtsezkoa da patroiaren, paperean marraztutako neurri eta lerroz betetako plano moduko horiek.

Joskitzaren munduan, beste detaile asko hartu behar dira kontuan: ehunak, koloreak, formak, detaileak, osagarriak, diseinu ausartak, klasikoak... sormen lan oso bat bezeroaren nahien neurritan, horretan espezializatu da Hernandez. Ezkontzen munduarentzat sortzen du nagusiki, baina bezeroen sorta zabalagoa du neurritako moda egile bezala. Magia norberaren gogo eta ezaugarrietara sortutako jantzi berdingabe horretan dago, eta bezeroak esperimentatzen duen gogobetetasunean ere bai, hori bereziki nabarmendu du: «Gozatzen dut jendearentzat sortzen eta jendea nire jantziez gozatzen ikusten».

Hogeita hamar urte bete bari, joskitza tailerra zabaldu du bere herrian. Bertatik, bi lan eremu lantzen ditu: sormen erabat askea diseinu berriak egiteko eta neurritan egindako joskitza. Tolesturak dira bere espezializazioetako bat, bere diseinuen ezaugarria. Horren atzean artisautzarekin oso lotuta dagoen teknika



Plisatze-teknikarekin egindako zenbait detaile. ARITZ LOIOLA | FOKU

«termiko eta kimiko» landu bat dagoela baieztatu ahal izan dugu, ehunaren fisio-
mia eraldatu eta figura geo-
metrikoak lortzeko.
Izan ere, klasiko bat da jos-
kintzan, baina ez da dirudien
bezain sinplea. Ikasketetan au-
keratu zuen «hungintza inge-
niarritza» deritzoten teknika
horren azterketa eta horretan
sakondu du, goitik behera Ge-
txon egindako plisatuak egite-
ra helduz. «Potentzial handia
dute, esperimentatuz jorratu
dut bide hori, eta iruditzen
zait balio erantsia ematen dio-
tela jantziari», azaldu du ehun
ezberdinetan sortutako plisa-
tuak eskuekin bihurritu eta as-
katzen dituen bitartean; azkar
berreskuratzen dute forma,
ezer egin izan ez balu bezala.

Bezeroek nahi duten jantzia
sortzea da bere lana, eta dioe-
nez, argazkiekin doaz batzuk,
ideia hobeto azaltzeko. Moda-
ren munduan, terminologiak
ere paper garrantzitsu bat jo-
katzen duela baieztatu dugu
In Fraganti honen protagonis-
tarekin hizketan. Ideia bat
esan ahala, zehaztutako esko-
te, mahuka... horri izen tekni-
koa jarri dio. Ereduen zirribo-
rroak dira lanaren beste
zutabeetako bat; modurik era-
ginkorrena, gainera, bezeroa-
ren nahietara hurbiltzeko,
ideia bisualago bat izan deza-
ten. Horietako dozenaka era-

kutsi ditu, forma bateko
mahukekin, eskote eta luzera
ezberdinekin... Irudiek azken
itxuraren ideia zehatzago bat
ematen dute, eta hori oso ga-
rrantzitsua da. Dioenez, entzu-
mena dohain inportantea da
lanbidean, bezeroaren nahia
jasotzeko, baina irudiekin alde
bien arteko ulermena hobe-
tzea lortzen da.
Ehuna aukeratzea beste
urratsetako bat da, hainbat
ikuspegi kontuan hartzea
behar duena, portzierto. Pre-
zioaz, gogoez eta koloreez
gain, «non eta nola ezkontzen
zaren ere begiratu behar da,
ehun batzuk ez direlako ego-
kienak ezkontza Cadizen bada,
esaterako». Egiten duen beste
galderetako bat zera da: «Jan-

tziarekin bidaiatu behar al du-
zu?». Sofistikatuegia dirudi
gaian aditua ez den batentzat,
baina alde praktiko bat du
guztiak, estilo kontua da, bai-
na ez da horretara bakarrik
mugatzen.
Kontsumo azkarreko modaz
inguratuta, artisau-moda es-
kaini ahal izatea baloratzeko
gauza bat dela dio Hernande-
zek. «Ohituta gaude dena az-
kar egiten, beherapenetan be-
rehalako gogobetetasuna
eragiten digun zerbait erosi
ahal dugu prezioari begira,
baina ez diogu jasangarritasu-
nari begiratzen, ezta arropa
horrek duen bizitza ziklo labu-
rrari ere», esan du. Jostunak
azaldu duenez, «neurrira egin-
dako joskintza artisautza» da,
«zerotik sortutako zerbait».
ZEROTIK EGINA ETA BIZITZA LUZEKOA
«Diseinua aukeratu ahal dugu
eta apustu bat egin bizitza zi-
klo luzeago bat izango duen
jantzi baten alde». Erantsi due-
nez, konponketak, gainera, au-
rrekontuaren barruan eskain-
tzen dituzte.
Batxilergo artistikoa ikasi
zuen, patroigintzako eta mo-
dako goi mailako teknikari

**Sormen prozesu osoa Getxon garatzea eta
auzokideei eskaintzea da Hernandezen lanaren
ardatzetako bat, «tokiko konfortean zirkulu bat
osatuz», kanpora jo beharrik gabe**
**TVEko ‘Maestros de la Costura’ saioan parte
hartu izanagatik ezagunak –bigarren geratu zen
azken saioan–, esperientzia aberasgarria izan
zela dio, «txarrena, zeuden denbora laburrak»**

gradua, Logroñon lau urteko
moda gradua, eta jostun han-
dien ondoan egin du lan prak-
tiketan. Javier Barroeta da ho-
rietako bat. Esperientzia
aberasgarritzat ditu guztiak,
«maisuren mugimendu guz-
tietara adi».
Formakuntzan sakontzen ja-
rraitu zuen Eometric patroig-
intzako eta joskintzako tekni-
ketako metodo profesionalen
inguruko ikastaroan, Bartzelo-
nan, eta Julio Momo maisu
jostunarekin beste ikastaro
aurreratu bat egin zuen Inga-
latterako jostun-teknika tradi-
zionalei buruz. Izan ere, ga-
rrantzi handia ematen dio
formatzeari. Nabarmendu du
funtsezkoa dela diseinatzaile
gazteentzat. Ezagutza zabal



bat izateak bidea errazten duela dio, aukera sorta zabalago bat ematen du, eta horrek isla du bezeroari eskaintzen zaion horretan. Zoritzarrez, Euskal Herrian jostuntza ikasteko aukerak murrizak direla dio.

Ama, Izaskun Urrutxurtu dauka ondoan, atelierrean. Ez du ezkututzen figura nabarmena izan dela lanbidea hartzeko orduan, eta asko ikasi duela bere ondoan. Eskuekin lan egitea, gainera, txikitatik izan du gustuko. Ama jostuna denez, gertutik bizi izan du lanbidea, eta elkarrekin jarraitzen dute modaren munduari ordu asko ematen, baita desorduetan ere.

Bezero baten aurrean jarraituko lukeen prozedura azaltzeko eskatu dio GAUR8k. Buruan zer-nolako jantzia duzun galdetzeaz gain, ehundura egoki bat aukeratzeak duen garrantzia azpimarratu du. Ehun ezberdinetako katalogoak zabaldu ditu erakusmahaietan: kotoia, zeta, belusa, artilea, kaxmirra... eta ehun italiarrak, «heldu diren azkenak». Ehun naturalak dira asko, eta salneurriari ere begiratu behar zaio. Ehun horietako batzuetan metroa 90 euroan egon daiteke. Artile ingelesaz egindako oihalek bat erakutsi du. “Made in England” irakur daiteke albo batean. Ehun horiek Ingalaterratik ekarriak dira. Eskatutako

Getxoztarrak neurritik egindako jantziak egiten ditu, eta batez ere ezkontza eta ekitaldietarako piezak sortzen ditu, baina azaldu du mota guztietako bezeroentzat lan egiten duela eta eskaera bereziak izan dituela, behar zehatz batzuei erantzunez.

Aritz LOIOLA | FOKU

traje bat egiteko da oihale zati hori. Gogoratu du Brexita dela eta batzuetan zailtasunak izan dituztela eskatutakoa jasotzeko. Hala ere, nagusiki inguruan hornitzen da gaztearen atelierre, eta hori ere etxeko marka nagusia da. «Getxon eginak daude jantziak %100ean, diseinua, plisatua eta patronatua Getxon eginda daude», nabarmentzen du gazteak, eta aipatzen du bere herriko jendearentzat sortzen duela.

Katalogo horietako batzuk dira Euskal Herriko mugetatik kanpotik datozen elementu bakarrak, baina tresna garrantzitsu bat direla dio, «bezeroak berak ikus dezakeelako, ukitu eta jantzia irudikatu». Ehunik freskoenak ere erakutsi ditu, ukitzearekin nahikoa da gozotasuna eta freskura sentitzeko. «Nire ustez, naturalak dira onenak, eta duten iraunkortasuna oso handia da; ehun on bat eskatzen didatenean naturalak etortzen zaizkit burura nagusiki», onartu du jostun

getxoztarrak. Ehun batzuk urtaroz zehatz batzuetarako dira, koloreak ere horrekin lotuta daude. Gorputz gehiago duten oihalekin errazagoa da lan egitea, ehun arinekin, ordea, zailtasun gehiago ematen dute, «milaka hari txikiz egindako ehunak dira, gehiago nabaritzen da jostunak...».

DISEINUTARA IREKIANAK

Anekdotak bat ekarri du gogora: Kordobako gaztelu batean ezkondu behar ziren mutil bi. Erronka potentea zen, beraz, bi ezkongai batera. Argazkien aurrean sortu zituen diseinuak azaldu ditu. Onartu duenez, esperientzia ederra izan zen sortzea eta diseinu originalak lortzea. «Plisatu kilo erdierekin» irten ziren hemendik, dio txantxetan.

Diseinu berritzaileetara zabalik gauden edo kontserbadoreak garen galdetu diogu Hernandezi: «Esango nuke gay-en ezkontzetan irekiago daudela aldaketetara, fantasie-

tara...». Horren harira erantsi du joera markatuak daudela oraindik, eta Bizkaian «jostuntza ingelesarekiko leialagoak garela eta Gipuzkoan nahiago dutela molde frantseza, adibidez. Erantsi du, halere, aukerak eskaini daitezkeela, ideiak eman, aholkatu...».

Duela gutxi Getxo Modako pasarelan erakutsi ahal izan ditu bere diseinuak, eta bete zuen. Gasteiz On desfileetan ere izan da, bereziki preziazten duen beste erakusleio bat. «Niretzat oso garrantzitsuak dira tokiko erakusleio horiek, tokiko jendearentzat sortzen baitut», dio Hernandezek, buruan dituen proiektuak aipatuz. Osagaien mundua esploratu nahi du, eta bitartean emaztegaiei eskainitako lerro bat garatzen ari da hurrengo urrian Gasteizko pasarelan aurkezteko: atelierra ideiaz betetzen duen erronka berri bat. •

Nerea GOTI

Moda eta tendentzia nahasten ditugu askotan, jostunaren esanetan, baina «tendentzia bizitza ziklo labur batekin lotuta dago, ahaztu egiten da; eta moda ez, jantzi britainiar bat moda da»

Lanbidean estila behar da, baina formakuntza funtsezkoa da kalitatezko jantzi bat emateko eta aldaketa eta teknika berrietara egokitzeko, adibidez ehun berritzaileen trataerarako

